# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-3192

17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei Buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 25EKO 17/1998 LEGEA, BOLUNTARIOEI BURUZKOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoan, arazoei aurre egin ahal izateko jendea elkartzeko ohitura handia izan da beti, eta aspaldi hasi ziren boluntario antolatuen mugimenduak.

Hainbat eta hainbat erakunde aspalditik ibili izan dira herritarrek zituzten behar frankori aurre egiteko komunitatean musutruk lan egiten, era guztietako zerbitzuak emanez, eta beharrei aurre egiteko moduren bat Administrazioak berak aurreikusi baino lehenagotik ibili ere.

Hain zuzen ere, borondatezko lanaren ondorioz sortu ziren mugimendu sindikala, profesionalen talde asko, herritarren erakunde ugari eta hainbat auzo nahiz erlijio erakunde.

Behin onarturik aginte publikoek badutela erantzukizunik giza duintasunarentzako oinarrizko eskubideez benetan baliatzeko bermeari dagokionez, bai eta aukera-berdintasunari eta gizarte-berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeari dagokienez ere, boluntarioen lanak ez du izan behar aurretik aipatutako xedeekin zerikusia duten zerbitzu publikoetan gertatzen diren hutsuneak ordezteko edo betetzeko.

Boluntarioek, euskal administrazio publikoei dagokienez, lagundu egin behar dute, berrikuntzak sartuz eta beste gizarte-eragileekin batera lan eginez, gizartea aldatzea helburu duten politika publikoak diseinatzen, garatzen eta burutzen, betiere lehentasuna emanez pobreziaren eta desberdintasunen aurka borrokatzeari eta zuzentasun eta berdintasun handiagoko gizartea eraikitzeari.

Argi utzi nahi dugu hori. Izan ere, badirudi gaur egun zalantzan jartzen direla oraindik hasi berria dugun gure Ongizate Estatuaren zenbait lorpen, eta arrisku bat dago: borondatezko gizarte-ekimena ekintza profesionalaren ordezkotzat jotzeko arriskua, eta ondo-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-3192

LEY 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 17/1998, DE 25 DE JUNIO, DEL VOLUNTARIADO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Comunidad Autónoma vasca es una Comunidad con una tradición de salida comunitaria de los problemas en la que el voluntariado organizado es un fenómeno con una larga trayectoria.

Durante mucho tiempo, un gran número de entidades han venido prestando servicios de todo tipo a la comunidad respondiendo de manera desinteresada a muchas necesidades que los ciudadanos y ciudadanas tenían planteadas, antes incluso de que la Administración contemplara algún tipo de respuesta.

El movimiento sindical, y muchos colectivos profesionales y organizaciones cívicas, vecinales y religiosas tienen su origen en el trabajo voluntario.

Una vez asumida la responsabilidad de los poderes públicos en lo que respecta a la garantía del efectivo disfrute de derechos básicos para la propia dignidad humana, la igualdad de oportunidades y la remoción de los obstáculos que impiden la igualdad social, el voluntariado no puede ni debe suplir, sustituir o cubrir las deficiencias de los servicios públicos afectados en estos fines antes mencionados.

El papel del voluntariado, en lo que a las Administraciones públicas vascas afecta, debe ser la contribución, en clave de innovación y en colaboración con otros agentes sociales, al diseño, desarrollo y ejecución de políticas públicas tendentes a garantizar el cambio social, teniendo como horizontes prioritarios la lucha contra la pobreza y las desigualdades y la construcción de una sociedad más justa e igualitaria.

Queremos afirmar esto en un momento -como el actual- en que parecen cuestionarse algunas conquistas de nuestro incipiente Estado de Bienestar, y en el que cabe caer en la tentación de entender la acción social voluntaria como un sucedáneo de la actividad profesional,

rioz gizartearen beharrei aurre egiteko zerbitzu publikoak sortu gabe uzteko arriskua.

Lege hau egitearen arrazoia honakoa da: alde batetik, erakundeei buruzko zenbait alderdi Elkarteen Legean araututa badaude ere, ez dagoela boluntarioen lana bera arautzeko legedi berezirik; bestetik, legearen bidez boluntarioen ekimena babestu nahi da.

Hori dena bermatzeak eta boluntarioen eta kide direneko erakundeen arteko harremanak nahiz erakunde horien eta Administrazioaren arteko harremanak bermatzeak lagundu egiten du boluntarioen zein erakundeen askatasuna areagotzen eta gehiegikeriak saihesten.

Baina lege honen ekarpen nagusia hauxe da: Euskal Administrazioak boluntariotza sustatzeko hartzen duen konpromezua, aldi berean herritar guztiek gizartea eraikitzen jarduteko duten eskubidea azpimarratuz.

Legeak zati hauek ditu: hiru xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen bat eta azken xedapen bi.

I. tituluan araututako xedapen orokorretan, legearen helburua eta aplikazio eremua zein diren eta boluntariotza kontzeptua zer den zehazten da; horrela, boluntariotza pertsona fisikoek aurrera eramaten duten interes orokorreko ekimen-multzoa izango litzateke, betiere zehazten diren baldintzetan egiten direnak; baldintza horietatik kanpo dauden ekimenak eta lege honen arabera boluntariotzaren barrukoak ez liratekeenak ere zehazten dira. Horretaz gain, interes orokorrekotzat joko diren ekimenak eta boluntariotzako ekimenak bideratzeko oinarriak zehazten dira.

II. tituluan Boluntarioaren Estatutua garatzen da bi kapitulutan banatzen den azalpenean: lehenengo kapituluan, boluntarioei buruzkoan, boluntario kontzeptua azaltzen da eta boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira. Bigarrenean, erakundeei eta erakunde eta boluntarioen arteko harremanei buruzkoan, erakundeek zein baldintza bete behar dituzten zehazten da, eta, lehenengo kapituluarekin bat etorriz, erakunde hauen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira. Boluntariotzako erakundeak deiturikoak sortzea ere aurreikusten da, eta, aurrekoak ez bezala, horiek izango duten espezifizitatea dela-eta, agian herri onurakotzat joak izango dira.

III. tituluak, boluntarioak dituzten erakundeen eta Administrazioaren arteko harremanak arautzen dituenak, Eusko Jaurlaritzak bete beharreko funtzioak ezartzen ditu, gizarte ongizate gaietarako eskumena duen sailaren bidez beteko dituenak. Sail horren menpe egongo da, era berean, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra, eta bertan izena eman ahal izango dute boluntarioak dituzten erakundeek, programak edo egitasmoak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten dituztenean. Bestalde, III. tituluan administrazio

vía para hacer dejación de responsabilidades a la hora de crear servicios públicos que respondan a demandas sociales.

Habiéndose legislado algunos aspectos de las organizaciones en la ley de Asociaciones, pero en ausencia de un marco legislativo para la actividad del voluntariado específicamente definido y para salvaguardarlo en su integridad, es por lo que tiene razón la existencia de esta ley.

Garantizar todo ello, así como determinadas relaciones entre los voluntarios y las voluntarias y las organizaciones en las que participan, o entre éstas y la Administración, contribuye a fortalecer el ejercicio mismo de la libertad de las partes y evitar abusos.

Pero, sobre todo, esta ley representa el compromiso de la Administración vasca de promover el voluntariado, profundizando en el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a participar en la construcción de la sociedad.

Esta ley consta de cinco títulos, tres disposiciones adicionales, una disposición transitoria y dos disposiciones finales.

En las disposiciones generales reguladas en su Título I se precisa su objeto y ámbito de aplicación, así como el concepto de voluntariado, entendido como el conjunto de actividades de interés general desarrolladas por personas físicas, siempre que se realicen en las condiciones que se determinan, explicitándose, «sensu contrario», el conjunto de actividades que a los efectos de esta ley no tendrán la consideración de voluntariado. Así mismo, se determina cuáles son las actividades que van a considerarse como de interés general y los principios de actuación que van a regir las acciones de voluntariado.

El Título II desarrolla el denominado Estatuto del Voluntario desde una doble perspectiva que se plasma en sus dos capítulos. El primero, de los voluntarios, establece el concepto de voluntario, determinando sus derechos y obligaciones. En el segundo, referido a las organizaciones y sus relaciones con los voluntarios, se especifica qué requisitos deben cumplir las organizaciones y, en lógica correspondencia con el capítulo anterior, se regulan los derechos y obligaciones de estas organizaciones. También se prevé la existencia de las denominadas organizaciones de voluntariado, que, dada su especificidad y a diferencia de las anteriores, podrán ser declaradas de Utilidad pública.

El Título III, regulador de las relaciones entre la Administración y las organizaciones que cuentan con voluntarios, por un lado determina las funciones que en esta materia desarrollará el Gobierno Vasco por medio del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de bienestar social, del que así mismo dependerá el Censo General de Organizaciones del Voluntariado, en el que podrán inscribirse las organizaciones que cuenten con voluntariado cuando realicen programas o proyectos en el ámbito de la Comunidad Au-

publikoen eta erakundeen arteko harremanen oinarriak ezartzen dira, hala nola elkarlaguntza, osagarritasuna eta parte-hartzea.

IV. tituluan, euskal administrazio publikoek boluntarioen lana sustatzeko eta errazteko bultzatuko dituzten ekintzak ezartzen dira, betiere euren eskumenek eta aurrekontu-ahalmenek horretarako aukera ematen duten neurrian.

Azkenik, V. tituluan, boluntariotzaren partaidetzari buruzkoan, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua sortu eta horren kideak eta eginkizunak zein izango diren arautzen da. Boluntariotza gaiaren inguruan biltzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko organoa izango da kontseilua, eta gizarte ongizate arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da.

Xedapen gehigarrietan, berriz, honakoa ezartzen da: alde batetik, erakundeek eskatzen badute, boluntarioak erakundeetan sartzea Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ezarritako hitzarmen- edo konpromezu-eredu normalizatu baten bidez formalizatu ahal izango dela. Bestalde, epe bat ezarriko da Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak beren funtzionamendu-araudiak egin ditzaten aski izango litzatekeena.

Azkenik, aldi baterako xedapenean urtebeteko epea ezartzen da, lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, legea indarrean jartzen denean boluntarioak dituzten erakundeak legean ezarritakora egoki daitezen.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Legearen helburua eta esparrua.

1.– Lege honen helburua hau da: irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egiten dituzten boluntariotzako ekimenetan herritarren parte-hartzea arautzea eta sustatzea; ekimen horietan ez dira sartzen gizartean bere kasa sortzen diren elkartasun-erak.

2.– Erakunde publikoek boluntarioen esku-hartzea beharrezkoa edo komenigarria dela sumatzean, irabazi-asmorik ez duten erakunde pribatuen bidez bideratuko dute esku-hartze hori; horrek, ordea, ez du inondik ere euskal administrazio publikoen eginkizunen utzikeriarik ekarri behar euskal herritarrei zerbitzu publikoak emateari dagokionez.

3.– Urtarrilaren 15eko 6/1996 Legearen 2. artikuluan (boluntariotzari buruzkoan) ezarritakoa aldarazi gabe, lege honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira batik bat Euskal Herrian jardungo duten erakundeak

tónoma vasca. Por otro lado, se establecen los principios inspiradores de las relaciones entre las Administraciones públicas y las organizaciones, tales como la colaboración, complementariedad y participación.

En el Título IV se determinan el conjunto de actuaciones que con el fin de fomentar y facilitar la acción del voluntariado las Administraciones públicas vascas promoverán en el ámbito de sus competencias y de acuerdo con sus disponibilidades presupuestarias.

Finalmente, en el Título V, dedicado a la participación del voluntariado, se crea el Consejo Vasco del Voluntariado como un órgano de encuentro, asesoramiento y consulta en materia de voluntariado, que estará adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de bienestar social, y se regulan sus funciones y composición.

En sus disposiciones adicionales se establece, por un lado, la previsión de que la incorporación de los voluntarios a las organizaciones podrá formalizarse a través de un modelo normalizado de acuerdo o compromiso que el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social pondrá a disposición de las organizaciones que lo soliciten, y, por otro, un plazo que se considera suficiente para que tanto el Censo General de Organizaciones del Voluntariado como el Consejo Vasco del Voluntariado dispongan de sus respectivos reglamentos de funcionamiento.

Por último, en su disposición transitoria se establece un plazo de un año, a partir del día siguiente al de la publicación de esta ley en el Boletín Oficial del País Vasco, para que las organizaciones que a su entrada en vigor dispongan de personal voluntario se ajusten a lo dispuesto en la misma.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– La presente ley tiene por objeto regular, fomentar y promover la participación de los ciudadanos y ciudadanas en acciones de voluntariado en aquellas organizaciones privadas que carezcan de ánimo de lucro, sin contemplar las múltiples formas de solidaridad social espontáneas.

2.– Cuando las entidades públicas detecten la necesidad o conveniencia de la intervención del voluntariado, articularán la misma a través de organizaciones privadas sin ánimo de lucro sin que ello pueda suponer, en ningún caso, dejación de la responsabilidad de las Administraciones públicas vascas en lo relativo a la prestación de servicios públicos a la ciudadanía vasca.

3.– Sin perjuicio de lo previsto en el artículo 2 de la Ley 6/1996, de 15 de enero, del Voluntariado, se regirán por lo dispuesto en la presente ley las organizaciones que desarrollen sus actividades principalmente

edota egoitza edo ordezkaritza Euskal Herrian duten erakundeak. Horretarako, erakundeak osatzeko ezartzen denari jarraituko zaio.

*2. artikulua.*– Boluntariotza kontzeptua.

1.– Lege honen ondorioetarako, pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.

b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebehar juridikoa ere.

c) Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.

d) Ordainsaririk gabeak izatea.

e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzea.

2.– Legearen ondorioetarako ez dira boluntariotza izango erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin famili kontuengatik, adiskidetasunagatik, on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egindako borondatezko ekintzak.

3.– Ordezko zerbitzu sozial gisa egindakoa ere ez da borondatezko ekintzatzat joko.

*3. artikulua.*– Interes orokorreko ekimenak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa argitzeko, interes orokorrekotzat jotzen diren ekimenak honakoak dira: gizartearen edo pertsonaren onerako lan egiteko konpromezua dutenak, esparrua edozein dela ere: gizartea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurugiroaren babesa edo antzekoa.

*4. artikulua.*– Jarduteko oinarriak.

Esparru ezberdinetako boluntariotzako ekimenek balore hauek izango dituzte oinarrian: elkartasuna, partaidetza, doakotasuna, autonomia aginte publikoen aurrean, bereizkeriarik eza, aniztasuna, integrazioa, prebentzioa, gizartearen sentsibilizazioa eta, oro har, gizarte demokratiko, moderno eta parte-hartzaile, zuzen eta berdintasunezko batean elkarbizitza errazten duten baloreak.

II. TITULUA
BOLUNTARIOAREN ESTATUTUA

I. KAPITULUA
BOLUNTARIOAK

*5. artikulua.*– Boluntario kontzeptua.

1.– Boluntarioa lege honetan aipatutako ekintzak egiteko konpromezua askatasun osoz hartzen duen per-

en el País Vasco o tengan en el mismo su sede o delegación. A tales efectos, se estará a lo que se disponga en el correspondiente documento constitutivo de la organización.

*Artículo 2.*– Concepto de voluntariado.

1.– A los efectos de la presente ley, se entiende por voluntariado el conjunto de actividades de interés general desarrolladas por personas físicas, siempre que se realicen en las siguientes condiciones:

a) De manera desinteresada y con carácter solidario.

b) Voluntaria y libremente, sin traer causa de una relación laboral, funcionarial o mercantil, o de una obligación personal o deber jurídico.

c) A través de organizaciones sin ánimo de lucro, y con arreglo a programas o proyectos concretos.

d) Sin retribución económica.

e) Sin sustituir, en ningún caso, servicios profesionales remunerados.

2.– No tendrán la consideración de voluntariado, a efectos de la ley, las actuaciones voluntarias espontáneas, esporádicas o prestadas al margen de organizaciones, ejecutadas por razones familiares, de amistad, benevolencia o buena vecindad.

3.– En ningún caso la tendrán las realizadas en virtud de la prestación social sustitutoria.

*Artículo 3.*– Actividades de interés general.

A efectos de lo dispuesto en el artículo anterior, se consideran actividades de interés general las que comporten un compromiso en favor de la sociedad o de la persona, que se desenvuelvan en el ámbito social, comunitario, cívico, cultural, de cooperación al desarrollo, de protección al medio ambiente o cualquier otro de naturaleza análoga.

*Artículo 4.*– Principios de actuación.

Las acciones de voluntariado en sus distintos ámbitos se regirán por los principios de solidaridad, participación, gratuidad, autonomía frente a los poderes públicos, no discriminación, pluralismo, integración, prevención y sensibilización social, y, en general, por todos aquellos que inspiran la convivencia en una sociedad democrática, moderna, participativa, justa e igualitaria.

TÍTULO II
ESTATUTO DEL VOLUNTARIO

CAPÍTULO I
DE LOS VOLUNTARIOS

*Artículo 5.*– Concepto de voluntario.

1.– Tendrá la consideración de voluntario la persona física que libremente se comprometa a realizar las

tsona fisikoa da; boluntariotzat jotzeko, ekintzek 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– Boluntariotzak boluntarioaren eta erakundearen artean harremanak izatea eskatzen du. Harreman horiek hainbat eskubide eta obligazio sortzen dituzte elkarrekiko, eta horiek, edo horien alderdirik nagusienak, Lege honetako 8.4a) artikuluan aipatutako barne estatutuak arautuko ditu.

3.– Boluntario izatea eta erakundeko bazkide izatea bateragarria izango da. Erakunde batean profesional modura jarduten dutenek edo erakunde horrekin laneko, merkataritzako edo beste edonolako harreman ordainsaridunak dituztenek ezin izango dituzte, inolaz ere, lan horiek berberak boluntario gisa egin.

*6. artikulua.*– Boluntarioaren eskubideak.

Boluntarioaren eskubideak dira:

a) Sartzen den erakundean aktiboki parte hartzea, erakundeari buruz jaso beharreko informazioa jasoz (batez ere haren xedeei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa), erakundean parte-hartze organoak sortzea eta organo horietako kide izatea.

b) Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoak diseinatu, egin, burutu eta ebaluatzen laguntza ematea; horretaz gain, erakundeko boluntario den aldetik, berari ere badagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea izango du boluntarioak.

c) Boluntario-lanak eskatzen duen laguntza teknikoa nahiz heziketa- eta giza laguntza jasotzea eta bere izaera eta ahalmenetara hobekien egokitzen den lanetara bideratzea.

d) Aseguratuta egotea, boluntario gisa lan egitean bitartekoren bati kalterik egin baliezaioke ere; asegurua araudian ezarritako baldintzetan eta araudiak ezarritako kapitalaren bidez egingo da.

e) Boluntarioak bere lana betetzeko xahututako dirua berreskuratzea, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.

f) Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta hurbilen egitea, programek eta egitasmoek horretarako aukera ematen duten neurrian.

g) Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea, boluntarioaren askatasuna, intimitatea eta sinismenak errespetatuz.

h) Lana segurtasun- eta higiene- baldintza egokietan egitea, lanaren ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.

i) Gizarteari emandako laguntzak merezi duen errespetua eta errekonozimendua lortzea.

actividades a que se refiere esta ley y en las condiciones que se señalan en su artículo 2.

2.– El voluntariado lleva inherente la relación entre una persona -el voluntario o voluntaria- y la organización en la que presta sus servicios. Esta relación genera unos derechos y unas obligaciones mutuas que deben quedar, al menos en sus fundamentos principales, regulados en el estatuto interno al que se refiere el artículo 8.4 a) de la presente ley.

3.– La condición de voluntario será compatible con la de socio en la misma organización. Las personas que desarrollen funciones en una organización como profesionales o tengan con la misma relaciones laborales, mercantiles o cualesquiera otras sujetas a retribución no podrán desarrollar las mismas funciones, en ningún caso, como voluntarios.

*Artículo 6.*– Derechos del voluntario.

Son derechos del voluntario o voluntaria:

a) Participar activamente en la organización en que se integre, recibiendo la debida información sobre la misma, y en especial sobre sus fines, estructura organizativa y funcionamiento, así como constituir y ser parte de los órganos de participación que se constituyan en el seno de la organización.

b) Colaborar en el diseño, elaboración, ejecución y evaluación de los programas o proyectos en los que intervenga así como tener la oportunidad de dar su opinión sobre aspectos de la organización que le afecten como voluntario.

c) Recibir el apoyo técnico, humano y formativo que requiera la tarea que desempeñe como voluntario o voluntaria, y recibir orientación sobre las actividades para las que reúna las mejores condiciones.

d) Recibir la cobertura de un seguro por los daños y perjuicios que el desempeño de su actividad como voluntario pudiera causar a terceros, con las características y por los capitales que se establezcan reglamentariamente.

e) Recibir una compensación económica por los gastos realizados en el desempeño de su actividad, siempre que así se haya establecido en las condiciones pactadas entre el voluntario y la organización y dentro de los límites previstos en dicho acuerdo.

f) En la medida en que los programas o proyectos a realizar lo permitan, desarrollar las actividades en su entorno más próximo.

g) Recibir un trato no discriminatorio y justo, respetando su libertad, dignidad, intimidad y creencias.

h) Realizar su actividad en las debidas condiciones de seguridad e higiene, en función de la naturaleza y características de la misma.

i) Obtener el respeto y reconocimiento a su contribución social.

j) Aurrez jakinarazita, boluntario izateari askatasunez uztea.

k) Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

*7. artikulua.*– Boluntarioaren betebeharrak.

Hauek dira boluntarioaren betebeharrak:

a) Sartuta dauden erakundeari laguntza ematea, bere ahalmen eta borondatearen heinean, parte hartuz eta erakundearekin batera lan eginez.

b) Erakundearekiko hartutako konpromezuak betetzea, erakundearen araubidea eta helburuak errespetatuz.

c) Berari egokitutako lanak arduraz egitea eta erakundeko arduradunek ezarritako jarraibideei segitzea.

d) Erakundeak aurreikusitako heziketa-ekintzetan eta lana behar bezala egiteko beharrezko ekimenetan parte hartzea.

e) Boluntario gisa lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.

f) Lagundu nahi dituzten pertsonen eta pertsona-taldeen eskubideak errespetatzea.

g) Boluntario-agiria eta erakundearen bereizgarria egoki erabiltzea.

h) Boluntarioaren esku uzten diren baliabide materialak zaintzea.

i) Oro har, boluntario-lana lege honetako 4. artikuluan ezarritako oinarriak betez egitea.

j) Lege honetatik eta boluntariotzari buruzko gainerako antolamendu juridikotik etorritako beste guztiak.

k) Onartzen diren segurtasun eta higieneko neurriak betetzea.

## II. KAPITULUA

## ERAKUNDEAK ETA HORIEN HARREMANAK BOLUNTARIOEKIN

*8. artikulua.*– Erakundeak.

1.– Boluntarioak dituzten erakundeak, edozein lege-ereduri dagozkiola ere, baldintza hauek bete beharko dituzte: legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi-asmorik ez izatea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan fundazio eta elkarteei dagokien erregistroan behar bezala erregistratuta egotea eta interes orokorreko ekintzen barruan programak edo egitasmoak garatzea (lege honetako 3. artikuluan zehaztuak).

j) Cesar libremente, previo aviso, en su condición de voluntario.

k) Los demás que se deriven de la presente ley y del resto del ordenamiento jurídico que haga referencia al voluntariado.

*Artículo 7.*– Obligaciones del voluntario.

Son obligaciones del voluntario:

a) Apoyar, en la medida de sus posibilidades y voluntad, activamente a la organización en la que se integra, participando y colaborando con la misma.

b) Cumplir los compromisos adquiridos con la organización, respetando los fines y la normativa por la que se rige.

c) Actuar diligentemente en la ejecución de las tareas que le sean encomendadas y seguir las instrucciones que se le impartan por los responsables de la organización.

d) Participar en las actividades formativas previstas por la organización y en las que sean necesarias para mantener la calidad de los servicios que se prestan.

e) Guardar la confidencialidad de la información recibida y conocida en el desarrollo de su actividad voluntaria.

f) Respetar los derechos de las personas o grupo de personas a quien dirige su actividad.

g) Utilizar adecuadamente la acreditación de voluntario y el distintivo de su organización.

h) Cuidar los recursos materiales que se pongan a su disposición.

i) En general, realizar la acción voluntaria conforme a los principios recogidos en el artículo 4 de esta ley.

j) Las demás que se deriven de la presente ley y del resto del ordenamiento jurídico que haga referencia al voluntariado.

k) Observar las medidas de seguridad e higiene que se adopten.

## CAPÍTULO II

## DE LAS ORGANIZACIONES Y SUS RELACIONES CON LOS VOLUNTARIOS

*Artículo 8.*– De las organizaciones.

1.– Las organizaciones que cuenten con voluntariado, cualquiera que sea su forma jurídica, habrán de estar legalmente constituidas y dotadas de personalidad jurídica propia, carecer de ánimo de lucro, estar debidamente registradas en los correspondientes registros de fundaciones y asociaciones de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y desarrollar programas o proyectos en el marco de las actividades de interés general definidas en el artículo 3 de esta ley.

2.– Boluntariotzako erakunde izendapena erakunde hauek hartuko dute: aurreko baldintzak betetzeaz gain kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egiten dituzten erakundeak.

3.– Boluntarioak erakundean sartzeko bidea idatziz jasoko den hitzarmen edo konpromezua izango da. Bertan erakundearen eta boluntarioaren arteko harremana altruista izango dela eta batak bestearekiko dituen eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren zehaztuko da; horretaz gain, eginkizunak, ekintzak, harremanaren iraupena, harreman hori desegiteko arrazoiak eta erakundeak eta boluntarioek finkatu nahi dituzten beste hainbat puntu zehaztuko dira, legeak dioena betetzen dela ziurtatzeko.

4.– Erakundeek honakoak egin beharko dituzte:

a) Erakundearen barnean boluntarioaren estatutu bat eratu beharko dute, eta bertan ezarri, gutxienez, erakundean onartzeko eta ez onartzeko irizpideak zein boluntarioen eskubide eta betebeharrak.

b) Behar dena antolatu, boluntarioak bai erakundean eta bai parte hartuko duen programa eta egitasmoetan bere laguntza emango duela eta behar duen informazioa jasoko duela bermatzeko.

c) Egin beharreko lanak egiteko egokiak diren bitartekoak eta laguntza eman boluntarioei.

d) Boluntarioei lanak ondo egiteko beharrezkoa den heziketa eman.

e) Boluntarioentzako aseguru-poliza sinatu; horren bidez, boluntarioak bere lana egiterakoan bitartekoren bati kalterik eginez gero aseguruak ordainduko lituzke kalteak, betiere araudian ezartzen diren baldintzetan eta araudiak ezartzen duen kapitalaren bidez.

f) Boluntario gisa egiten duen berariazko lanari dagozkion segurtasun- eta higiene-baldintzak bermatu.

g) Boluntarioari berak egindako lanak egiaztatzen dituen agiri bat egin.

h) Boluntario berri bat erakundean sartzean egiten den hitzarmenean ezarritakoa bete.

i) Erakundean sartzen direnen eta erakundeko kide izateari uzten diotenen erregistroa egin.

j) Boluntario gisa lan egitean boluntarioak xahututako diru-kopurua itzuli, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako mugen barruan.

k) Boluntarioari egiaztagiri bat eman bere lanerako gaitu eta identifikatuko duena.

5.– Erakundeen eskubideak dira:

a) Egin beharreko lanaren arabera aukeratzea boluntarioak.

2.– Se denominarán organizaciones de voluntariado las que, además de cumplir las anteriores condiciones, estén integradas mayoritariamente por voluntarios y desarrollen la mayoría de sus programas o proyectos de acción fundamentalmente a través de tales voluntarios o voluntarias.

3.– La incorporación de los voluntarios o voluntarias a las organizaciones se formalizará por escrito mediante el correspondiente acuerdo o compromiso que, además de determinar el carácter altruista de la relación, tendrá como contenido los derechos y las obligaciones recíprocas de las partes, y las funciones, actividades, duración de la relación, causas de su resolución y cuanto estimen entre ambas partes, con el fin de salvaguardar las garantías de la ley.

4.– Las organizaciones deberán en todo caso:

a) Elaborar un estatuto interno del voluntario en la organización, en el que como mínimo se establecerán los criterios de admisión y exclusión de los voluntarios y sus derechos y deberes.

b) Articular los mecanismos necesarios para garantizar la información, participación y colaboración de los voluntarios, tanto en la organización como en los proyectos o programas en que se integre.

c) Dotar a los voluntarios del apoyo y de los medios adecuados para el cumplimiento de sus funciones.

d) Proporcionar a los voluntarios la formación necesaria para el desarrollo correcto de sus actividades.

e) Suscribir un póliza de seguros que garantice a los voluntarios la cobertura por los daños y perjuicios que pudieran ocasionar a terceros en el ejercicio de su actividad, con las características y por los capitales que se establezcan reglamentariamente.

f) Garantizar las debidas condiciones de seguridad e higiene en función de la actividad específica que desempeñe en el desenvolvimiento de su acción voluntaria.

g) Expedir al voluntario el certificado que acredite los servicios prestados.

h) Cumplir los compromisos adquiridos con los voluntarios en el acuerdo de incorporación a la organización.

i) Llevar un registro de altas y bajas del personal voluntario.

j) Efectuar el reembolso de los gastos ocasionados por la actividad voluntaria, cuando así se haya previsto en las condiciones pactadas entre el voluntario y la organización y dentro de los límites previstos en dicho acuerdo.

k) Facilitar al voluntario una acreditación que le habilite e identifique para el desarrollo de su actividad.

5.– Serán derechos de las organizaciones:

a) Seleccionar a los voluntarios de acuerdo con las tareas a realizar.

b) Erakundeek egiten duten borondatezko lanaren inguruan beharrezko informazioa eta orientabidea eskatzea Administrazioari eta eskatutako hori jasotzea.

c) Borondatezko lana sustatzeko ekintzetan aurreikusten diren neurrietara jo ahal izatea.

III. TITULUA

BOLUNTARIOAK DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO HARREMANAK

*9. artikulua.–* Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.

Boluntariotzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak honako eginkizun hauek beteko ditu gizarte ongizatearen arloan eskumenak dituen sailaren bidez:

a) Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra kudeatu eta antolatu.

b) Boluntariotzaren baliabideei buruzko katalogo bat egin, bertan Autonomia Erkidegoan garatzen diren programen edukia agertuko delarik.

c) Lehendik dauden fondoak koordinatuko dituzten boluntariotzari buruzko agiri-fondoa eta datu-basea sortu.

d) Boluntariotzako egitasmo jakin bati ekin dioten erakundeei behar eta eskatzen dituzten aholkuak eta laguntza eman.

*10. artikulua.–* Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra.

1.– Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra sortuko du gizarte ongizatearen arloan eskuduntza duen Eusko Jaurlaritzako sailak. Errolda horretan 8. artikuluan aipatzen diren erakundeak sartuko dira, hain zuzen ere 1.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki lege hau bete behar duten erakundeak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzapeko fundazio- eta elkarte-erregistroen arduradunek erroldan jakinarazi beharko dute fundazio eta elkarte horietan jende berria sartzean, baldin eta erakundeak boluntarioak baditu. Horretarako, hasieran izen-ematea egiterakoan, erakundeek erregistroei jakinarazi beharko diete boluntarioak dituzten erakundeak direla.

3.– Dena dela, eta aurreko lerrokadan aurreikusitakoa aldarazten ez dela, erakundeek zuzenean ere eman ahal izango dute izena erroldan.

*11. artikulua.–* Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanak bultzatu dituzten printzipioak.

b) Solicitar y obtener de la Administración la información y la orientación necesarias relacionadas con su actividad de voluntariado.

c) Concurrir a las medidas contempladas en las acciones de fomento de la actividad voluntaria.

TÍTULO III

DE LAS RELACIONES ENTRE LA ADMINISTRACIÓN Y LAS ORGANIZACIONES QUE CUENTAN CON VOLUNTARIOS

*Artículo 9.–* Competencias del Gobierno Vasco.

El Gobierno Vasco, por medio del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de bienestar social, ejercerá en relación al voluntariado las siguientes funciones:

a) Gestionar y organizar el Censo General de organizaciones del Voluntariado.

b) Confeccionar un catálogo público de los recursos del voluntariado, que integrará el contenido de los diferentes programas que se desarrollen en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

c) Crear un fondo documental y base de datos sobre voluntariado que coordine los distintos fondos existentes.

d) Proporcionar el asesoramiento técnico y la colaboración precisa que se solicite por las organizaciones que acometen un proyecto determinado de voluntariado.

*Artículo 10.–* Censo General de Organizaciones del Voluntariado.

1.– Se crea el Censo General de Organizaciones del Voluntariado en el Departamento del Gobierno Vasco que tenga asignadas las competencias en materia de bienestar social. Dicho censo se integrará por las organizaciones a que se refiere el artículo 8 a las que, de acuerdo con lo previsto en el artículo 1.3, les sea de aplicación la presente ley.

2.– Los responsables de los registros de fundaciones y asociaciones de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán comunicar al censo las inscripciones que sobre ellas hubieran practicado cuando se refieran a organizaciones que cuenten con voluntariado. A estos exclusivos efectos, en el momento de la oportuna inscripción inicial las organizaciones manifestarán ante los correspondientes registros su carácter de organizaciones que cuentan con voluntariado.

3.– En cualquier caso, y sin perjuicio de lo previsto en el párrafo anterior, las organizaciones también podrán inscribirse directamente en el censo.

*Artículo 11.–* Principios inspiradores de las relaciones entre las Administraciones públicas y las organizaciones.

1.– Elkarlaguntza, parte-hartzea eta osagarritasuna izango dira administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanen oinarri. Nolanahi ere, boluntariotzako erakundeek antolaketarako eta ekimenak bultzatzeko duten autonomia babestu beharko du Administrazioak.

2.– Berariazko hitzarmenen bidez bideratuko da nagusiki administrazio publikoen eta erakundeen arteko elkarlaguntza.

3.– Administrazio publikoen eta erakundeen arteko harremanak beharrezkoak eta komenigarriak izanik ere, horrek ez ditu inola ere aginte publikoak beren erantzukizunetik libre uzten ez giza duintasunarentzako oinarrizko eskubideez benetan baliatzeko bermeari dagokionez, ez aukera-berdintasunari eta gizarte-berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeari dagokienez.

IV. TITULUA

BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA

*12. artikulua.–* Sustatzeko neurri orokorrak.

Boluntarioen lana erraztu eta sustatzeko asmotan, euskal administrazio publikoek honako ekimen hauek bultzatuko dituzte, besteak beste, euren aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen dieten neurrian:

a) Boluntarioak dituzten erakunde ezberdinen baliabide eta bitartekoak bateratu, batez ere heziketari eta informazioa biltzeari dagokienez.

b) Boluntariotza antolatua oro har sustatzeko bitartekoak jarri, laguntzako boluntariotzaren aurrean boluntariotza eraldatzaileari lehentasuna emanez, sustatzeko bitarteakoak jarri. Modu berezian sustatuko dira lurralde eta udal batera mugatu gabe erakundeen arteko elkarlaguntza bultzatzen duten ekimenak, sektore eta esparru bakarrean jarduteko ez direnak.

c) Dirulaguntza programetarako deialdiak egin eta hitzarmenak sinatu, hartara administrazio publikoen errolda nahiz erregistroetan sartutako erakundeak iraunarazteko eta horien heziketa eta ekimenak bultzatzeko.

d) Boluntariotzari buruzko ikerketak, azterketak eta argitalpenak egin.

e) Erakundeei informazioa, dokumentazioa, aholkuak eta laguntza teknikoa eman.

f) Boluntariotzari buruzko informazio-kanpainak antolatu eta boluntariotzaren baloreak zabaldu.

g) Borondatezko lana publikoki eskertzeko ohorezko neurriak ezarri.

h) Komunikabideetan boluntarioaren mezua agertuko dela bermatu, bai eta boluntarioaren lana oro har publikoki ezagutzera emango dela ere.

1.– Las relaciones entre las Administraciones públicas y las organizaciones se inspirarán en los principios de colaboración, complementariedad y participación. En todo caso, la actuación administrativa deberá salvaguardar la autonomía de organización y de iniciativa del voluntariado.

2.– La colaboración entre las distintas Administraciones públicas y las organizaciones se instrumentará, preferentemente, a través de convenios específicos.

3.– Las necesarias y deseables relaciones entre las Administraciones públicas y las organizaciones en ningún caso podrán exonerar a los poderes públicos de su responsabilidad en lo que respecta a la garantía del efectivo disfrute de derechos básicos para la propia dignidad humana, la igualdad de oportunidades y la remoción de los obstáculos que impiden la igualdad social.

TÍTULO IV

DEL FOMENTO DEL VOLUNTARIADO

*Artículo 12.–* Medidas generales de fomento.

Con el fin de fomentar y facilitar la acción de voluntariado, las Administraciones públicas vascas promoverán, en el ámbito de sus competencias y de acuerdo con sus disponibilidades presupuestarias, entre otras actuaciones, las siguientes:

a) La puesta en común de recursos y medios entre las organizaciones que cuentan con voluntarios, sobre todo en materia de formación y recogida de información.

b) Las medidas encaminadas a potenciar el voluntariado organizado, en general, y preferentemente el voluntariado transformador frente al de tipo asistencial. Especial atención recibirán aquellas acciones que propongan la colaboración entre organizaciones, superando el trabajo sectorial y el realizado en un solo ámbito, estando vinculadas al territorio y al municipio.

c) Convocar programas subvencionales y suscribir convenios para el mantenimiento, formación y acción de las organizaciones inscritas en los diferentes registros o censos creados por las Administraciones públicas.

d) La realización de investigaciones, estudios y publicaciones sobre el voluntariado.

e) Los servicios de información, documentación, asesoramiento y apoyo técnico a las organizaciones.

f) La organización de campañas de información sobre el voluntariado y la difusión de los valores del voluntariado.

g) La implantación de medidas de tipo honorífico para reconocer públicamente el trabajo voluntario.

h) Garantizar la presencia del mensaje del voluntario en los medios de comunicación y el conocimiento público en general de la labor realizada por el voluntario.

i) Autonomia Erkidegoko erakundeak Autonomia Erkidegoaz kanpoko lurralde eremua duten beste erakunde batzuekin harremanetan jarri.

j) Lanaldia murrizteko edo egokitzeko neurriak jarri, borondatezko lana egin ahal izateko.

k) Borondatezko lana errazteko lege-, lan- eta zerga-esparru egokiak bultzatu.

*13. artikulua.–* Herri onurakotzat jotzea.

Lege honetako 8.2 artikuluak barne hartzen dituen boluntariotzako erakundeak herri onurakotzat jo daitezke, beren forma juridikoei dagokien berariazko legedian ezarritakoari jarraiki.

V. TITULUA

BOLUNTARIOTZAREN PARTAIDETZA

*14. artikulua.–* Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

1.– Elkartasun-politikan gizarteko erakundeek eta gizarte osoak parte hartzeko, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua sortu da, boluntariotza gaiaren inguruan biltzeko, aholkuak emateko eta kontsultak egiteko organo gisa.

2.– Kontseilu hori gizarte ongizate arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da.

*15. artikulua.–* Eginkizunak.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honakoak izango dira:

a) Arau orokorrak emateko aurreproiektuak edo proiektuak egiterakoan, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak ezinbestean egin beharko du horiei buruzko txostena, baldin eta arau horiek zuzenean boluntariotzari badagozkio. Txostena, boluntarioek eskatu eta hamabost eguneko epean bidali beharko da.

b) Boluntariotzaren oinarrizko beharrak zeintzuk diren antzeman eta aztertu.

c) Euskal administrazio publikoei aholkua eman eta proposamenak zein egitasmoak aurkeztu borondatezko lana egiten den esparru ezberdinei buruz. Horrekin batera, boluntariotza programak diruz laguntzerakoan lehentasuna izango luketen irizpideak proposatu.

d) Boluntariotza sustatzeko neurriak aztertzeko eta zuzentzeko proposamenak egin euskal administrazio publikoei.

e) Jakinaren gainean egon euskal administrazio publikoek boluntariotza programen gainean egindako jarraipenaz eta ebaluazioaz, bai eta emandako dirulaguntzez ere.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoeraren berri eman urtero, txosten baten bidez.

i) La conexión de las organizaciones con organizaciones de ámbito territorial distinto al de la Comunidad Autónoma.

j) Las medidas encaminadas a la reducción de jornada o a la adaptación de la misma para prestar servicios voluntarios.

k) El impulso de un marco legal, laboral y fiscal favorable para el desarrollo de la acción voluntaria.

*Artículo 13.–* Declaración de utilidad pública.

Las organizaciones de voluntariado a que se refiere el artículo 8.2 de esta ley podrán ser declaradas de utilidad pública en los términos previstos en la legislación específica de sus correspondientes formas jurídicas.

TÍTULO V

DE LA PARTICIPACIÓN DEL VOLUNTARIADO

*Artículo 14.–* El Consejo Vasco del Voluntariado.

1.– Con el objeto de hacer partícipe a la sociedad y a sus organizaciones de las políticas de solidaridad, se crea el Consejo Vasco del Voluntariado como órgano de encuentro, asesoramiento y consulta en materia de voluntariado.

2.– Dicho consejo estará adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de bienestar social.

*Artículo 15.–* Funciones.

Serán funciones del Consejo Vasco del Voluntariado:

a) Informar preceptivamente los anteproyectos y proyectos de disposiciones normativas de carácter general que afecten directamente al voluntariado. Dicho informe se emitirá en el plazo de quince días desde que sea requerido.

b) Detectar y analizar las necesidades básicas del voluntariado.

c) Asesorar y elevar a las Administraciones públicas vascas propuestas e iniciativas en relación a los distintos campos en los que se desarrolla la acción voluntaria, así como proponer los criterios que pudieran considerarse preferentes en la actividad subvencionadora de los programas de voluntariado.

d) Analizar y dirigir propuestas a las Administraciones públicas vascas sobre medidas de fomento del voluntariado.

e) Ser informado del seguimiento y evaluación que realicen las Administraciones públicas vascas sobre los programas de voluntariado, así como de las subvenciones que se otorguen.

f) Emitir un informe anual sobre el estado del voluntariado en la Comunidad Autónoma vasca.

g) Elkartasunarekin zerikusia duten parte-hartze organoetan gizarte eragileak egotea bultzatu.

h) Kontseiluaren funtzionamendu-araudia proposatu Gobernuari.

i) Ekintzen urteroko txostena onartu.

*16. artikulua.*– Osaera.

1.– Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren kideak honakoak izango dira:

a) Lehendakaria: kontseilua Eusko Jaurlaritzako sail bati atxikita egongo denez, sail horretako sailburua bera edo horrek eskuordetutako pertsona.

b) Lehendakariordea: boluntariotzako erakundeen artean aukeratutako bat. Lehendakariaren hainbat eginkizun beteko ditu, araudiz ezarrita daudenak, hain zuzen.

c) Bokalak:

– Eusko Jaurlaritzako sei ordezkari, sailburuorde mailakoak, gizarte ongizate, ingurugiro, babes zibil, kanpo ekintza, kultura, hezkuntza, kirol eta osasun arloan eskumenak dituzten sailek izendatuak.

– Foru aldundietako hiru ordezkari, aldundiek berek izendatuak.

– Udaletako hiru ordezkari, ordezkaritza handiena duen euskal udal elkarteak izendatuak.

– Erakundeetako hamahiru ordezkari, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean izena emandako erakundeen artetik aukeratuak, hain zuzen ere erakunderik txikienetako ordezkariak ere bokal izan ahal izateko moduko partaidetza-sistema batez aukeratuak. Ordezkari horiek guztiak edo horietako batzuk izendatu gabe egonez gero, kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu.

d) Idazkaria: lehendakariak izendatuko du kontseiluko kideen artean.

2.– Kontseilukideak hiru urterako aukeratuko dira, duten ordezkaritzaren arabera, nahiz eta aldi hori beste horrenbeste luzatu ahal izango den. Izendatu zituen organoak kendu ere egin ditzake kontseilutik, dagokien aldia bete baino lehen.

3.– oluntariotzaren Euskal Kontseilura jotzeko eskubidea izango dute, halaber, tratatzen den gaian adituak direnek, baina informatzeko edo aholkua jasotzeko soil-soilik.

g) Promover la presencia de los agentes sociales en los órganos de participación existentes relacionados con la solidaridad.

h) Proponer al Gobierno el reglamento de funcionamiento del consejo.

i) Aprobar la memoria anual de sus actividades.

*Artículo 16.*– Composición.

1.– El Consejo Vasco del Voluntariado estará integrado por los siguientes miembros:

a) Presidente: el Consejero o la Consejera del Departamento al que está adscrito el consejo o persona en quien delegue.

b) Vicepresidente: quien resulte de la elección entre los miembros representantes de las organizaciones del voluntariado. Tendrá delegadas aquellas funciones de la presidencia que se determinen reglamentariamente.

c) Vocales:

– seis representantes del Gobierno Vasco, con rango de Viceconsejero o Viceconsejera, designados por los Departamentos competentes en materia de bienestar social, medio ambiente, protección civil, acción exterior, cultura, educación, deporte y sanidad.

– tres representantes de las Diputaciones forales, por designación de cada una de ellas.

– tres representantes de los municipios por designación de la asociación de municipios vascos más representativa.

– trece representantes de las organizaciones, por elección de entre las que están inscritas en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado a través de un sistema participativo que permita la presencia de las organizaciones más pequeñas. En caso de no existir designación de todos o parte de dichos representantes, los mismos serán designados por la presidencia de este consejo.

d) Secretario o Secretaria: quien sea designado por la presidencia, de entre los miembros del Consejo.

2.– Los miembros del consejo, elegidos en función de su representatividad, tendrán un mandato de tres años, renovable por una sola vez, pudiendo ser cesados antes de su mandato por el órgano que les designó.

3.– También podrán asistir al Consejo Vasco del Voluntariado, a efectos meramente informativos o de asesoramiento, personas expertas en la materia de que se trate.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Bat.*– Eredu normalizatua.

Lege honetako 8.3 artikuluan aipatzen den hitzarmen- edo konpromezu-eredu normalizatua bidaliko die Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak hala eskatzen duten erakundeei.

*Bi.*– Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra.

Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak funtzionamendu-araudi bat onartuko du Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrerako, gizarte ongizatearen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta.

*Hiru.*– Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

Boluntariotzaren Euskal Erakundea eratu eta sei hilabeteko epean funtzionamendu-araudi bat egingo du; funtzionamendu-araudi hori Eusko Jaurlaritzak onartuko du, gizarte ongizatearen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

*Bakarra.*– Erakundeak egokitzea.

Lege hau indarrean jartzen den unean boluntarioak dituzten erakundeek lege honetan ezarritakora egokitu beharko dute lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebeteko epean.

AZKEN XEDAPENAK

*Bat.*– Araudi bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzari eskumena ematen zaio lege hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak emateko.

*Bi.*– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Modelo normalizado.

El Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social pondrá a disposición de las organizaciones que lo soliciten un modelo normalizado del acuerdo o compromiso que se menciona en el artículo 8.3 de esta ley.

*Segunda.*– Censo General de Organizaciones del Voluntariado.

En el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta ley, el Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de bienestar social, aprobará un reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado.

*Tercera.*– Consejo Vasco del Voluntariado.

El Consejo Vasco del Voluntariado elaborará en el plazo de seis meses a partir de su constitución un reglamento de funcionamiento que será aprobado por el Gobierno Vasco a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de bienestar social.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única.*– Adaptación de las organizaciones.

Las organizaciones que a la entrada en vigor de esta ley dispongan de personal voluntario deberán ajustarse a lo previsto en la misma en el plazo de un año a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/ de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.